

Euskal enpresen % 16,5 berritzaileak izan ziren 2014an, % 34,5, 10 langile edo gehiago dituzten enpresen kasuan

Enpresa berritzaileen % 88,1en arabera, berrikuntzak ondorio positiboak ditu

EAEko enpresen % 16,5ek berrikuntzak –teknologikoak edo ez– egin zituzten 2014an, Eustatek eginiko datuen arabera. Berrikuntzak egin dituzten 10 langile edo gehiagoko enpresak bakarrik kontuan hartuta, enpresa berritzaileak % 34,5 dira, 2013an baino 0,2 gutxiago.

1. taula: Enpresak berrikuntza motaren eta tamainaren arabera. 2012-2014

Euskal AE	Berrikuntza teknologikoa		Enpresa berritzaile teknologikoak	Berrikuntza ez-teknologika		Enpresa berritzaile teknologikoak	Enpresa berritzaileak (1)	Enpresa berritzaile EIN (1) (2)
	Produktuan	Prozesuan		antolamenduan	merkaturatzean			
Guztira	7,4	10,1	12,2	5,8	7,0	9,5	16,5	17,0
10 enplegatu eta gehiago	18,0	20,9	27,5	16,7	9,7	20,5	34,5	37,1

(1) Berrikuntza teknologikoa eta/edo ez-teknologika

(2) Aribideko edo huts egindako berrikuntzako enpresak bane daude

Iturria: Eustat. Euskal AEko berrikuntzaren inkesta

EAEko enpresen % 12,2k berrikuntza teknologikoak egin zituen 2012-2014 aldian, aurreko ekitaldian baino 0,5 gutxiago. Hau da, 19.646 enpresa. **Berrikuntza teknologiko** deritzo enpresek **produktu** berri edo nabarmen hobetu bat (ondasuna edo zerbitzua) **merkaturatzeari** –2014an, enpresen % 7,4– **edo establezimenduan bertan prozesu** berri edo nabarmen hobetu bat ezartzeari –% 10,1–.


Alabaina, 10 langile edo gehiagoko enpresak kontuan hartuz gero, ehuneko hori % 27,5ekoa da, aurreko urtean baino 0,9 gutxiago. Mota horretako enpresei dagokienez, % 18k produktuan egin du berrikuntza, eta % 20,9k prozesuetan.

Euskal enpresek BPGren % 3,7 adina gastatu zuten berrikuntza teknologikorako jardueretan

Euskal enpresek berrikuntza teknologikorako jardueretan 2.474,0 milioi euro gastatu zituen 2014an, aurreko ekitaldian baino % 3,5 gutxiago. BPGren % 3,7 adina izan zen gastu hori.

Berrikuntza teknologikorako beharrezkoak diren jarduera nagusien artean, barne I+Gn egindako gastua nabarmentzen da –guztizkoaren % 52,1–, hala nola makineria eta ekipamendua erostea –% 23,5–, kanpo I+G erostea –% 16– eta gainerako jarduerak –% 8,4–.

1. grafikoa: Berrikuntza gastuaren banaketa jardueren arabera (%). 2014 urtea



Iturria: Eustat. Euskal AEko berrikuntzaren inkesta

Berrikuntzak egin dituzten enpresen % 25,8k finantzaketa publikoa jasotzen dute

Lagunen jatorriari erreparatuz gero, Eusko Jaurlaritzarena nagusitzen da, enpresa berritzaile guztiek jasotakoaren % 19,3 ematen duelako. 10 langile edo gehiagokoen kasuan, % 51,7k ere diru-laguntzak jasotzen dituzte. Kasu honetan ere, Eusko Jaurlaritza da finantzaketa-emaitza nagusia, zehazki mota horretako enpresen berrikuntza-gastuen % 39,3 finantzatzen duelako.

2. taula: Finantzazio publikoa jasotzen duten enpresa teknologikoki berritzaileak, finantzazioaren jatorriaren arabera (%). 2012-2014

Unitatea: enpresa portzentajea

	Guztira	10 langile edo gehiago
Finantzaketa publikoajasotzen dute haueetatik	25,8	51,7
Tokiko administrazioak	2,6	9,2
Foru aldundiak	6,5	16,6
Eusko Jaurlaritza	19,3	39,3
Administrazio zentrala	7,6	19,6
Europar Batasuna	2,9	9,8

Iturria: Eustat. Euskal AEko berrikuntzaren inkesta

Enpresen % 83,1en iritzian, berrikuntza onuragarria da bere produktuentzat, izan ondasun ala zerbitzu; % 72,2ren iritzian, barne-prozesuetan egiten du onura; % 53,7ren iritzian,

langabezia; eta % 50,7ren iritzian, beste alderdi batzuetan, ingurumen-inpaktu txikiagoan edota langileen osasunaren hobekuntzan.

Berrikuntza egiten duten 10 langile edo gehiagoko enpresen kasuan, % 93,5en iritzian, berrikuntzak ondorio positiboak ditu. Gainerako ehunekoak, % 87,3, % 68,1, % 59,6 eta % 48,1 dira hurrenez hurren.

Enpresen erdiak baino gehiagok uste du berrikuntza teknologikoa egiteko trabak daudela

Zehazki, % 58,5en iritzian, hainbat faktorek zailtzen dute berrikuntza teknologikoa. Horien artean, ekonomikoek dute garrantzi handiena. Esaterako, arrisku ekonomiko gehiegizkoak (% 39), berrikuntza egitearen kostu handiak (% 45,1) eta finantza-iturririk ez izatea (% 39,8). 10 langile edo gehiagoko enpresen kasuan, berrikuntza zailtzen duten faktoreak daudela uste dute % 66,6k, eta eragozpen berdinak aipatzen dituzte.

Berrikuntza ez-teknologikoari dagokionez (% 9,5), **antolaketan** eta **merkaturatzean** egindako berrikuntzak aipatu behar dira. **Antolaketan berrikuntzak** egitea enpresaren barne-funtzionamenduan antolaketa-metodo berriak ezartzean datza; euskal enpresen % 5,8k egiten dute. **Merkaturatzean berrikuntzak** egitea aurrekoetatik nabarmen desberdinak diren eta sekula baliatu ez diren estrategia edo kontzeptu komertzialak gauzatzean datza; euskal enpresen % 7,0k egiten dute. 10 langile edo gehiagoko enpresetan, berrikuntza ez-teknologikoa egiten dute % 20,5ek: antolaketan berrikuntzak egin dituzte % 16,7k; merkaturatzean, berriz, % 9,7k.

Informazio gehiago izateko:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea

Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 017 562

[Euskal Autonomia Erkidegoko berrikuntzaren inkestari buruzko prentsa-ohar gehiago](#)

[Euskal Autonomia Erkidegoko berrikuntzaren inkestari buruzko datu-bankua](#)